



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2019.02.26

Tolosako Udaletxean, 2019ko otsailaren 26an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeke udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 26 de febrero de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:

Iñigo Alonso Sarasibar
Jarduneko idazkaria:
Antton Rivero Urbistondo

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:
2018ko abenduaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urtarrilaren 17ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urtarrilaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako Udal Musika Banda kontratatzeke zerbitzu

Orden del día

1. Aprobación de la siguientes actas:
Sesión ordinaria del 27 de diciembre de 2018.
Sesión extraordinaria del 17 de enero de 2019.
Sesión ordinaria de 29 de enero de 2019.
2. Aprobación del procedimiento para la contratación de los servicios de la



- kontratua esleitzeko jardunbidea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, eta lizitazioari hasiera ematea.
3. Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoen ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onarpena.
 4. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onarpena.
 5. 2018/18 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2018/2374 alkatetza dekretuaren jakinarazpena.
 6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2018ko abenduaren 31koak: 2018/2359-2018/2394).
2019ko urtarrilaren 1etik 31ra (2019/1-2019/172).
 7. "Bizitzak erdigunera", 2019ko martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko mozioa.
 8. Mozioa: Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrena.
 9. Mozioa: Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berria. Tolosaldeko euskararen mahaia.
 10. Galderak eta eskaerak.
- Banda Municipal de Música de Tolosa por procedimiento negociado sin publicidad, e iniciar la licitación.
3. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de los precios públicos por prestación de servicios públicos y realización de actividades.
 4. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
 5. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2374/2018 del expediente de modificación de crédito realizada en la modalidad de crédito adicional (18/2018).
 6. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:
Del 31 de diciembre de 2018 (2018/2.359- 2018/2.394).
Del 1 al 31 de enero de 2019 (1/2019-172/2019).
 7. "Las vidas al Centro". Moción en apoyo a la huelga feminista del 8 de marzo de 2019.
 8. Moción 43 aniversario de la proclamación de la República Democrática Árabe Saharaui.
 9. Moción: La Mesa de Euskara de Tolosaldea. Nuevo modelo de gobernanza.
 10. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Ondorengo aktak onartzea:**
2018ko abenduaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urtarrilaren 17ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urtarrilaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

1. **Aprobación de la siguientes actas:**
Sesión ordinaria del 27 de diciembre de 2018.
Sesión extraordinaria del 17 de enero de 2019.
Sesión ordinaria de 29 de enero de 2019.

Izenburuan aipatutako aktak aho batez **onartu** dira.



2. Onartzea Tolosako Udal Musika Banda kontratatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko jardunbidea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, eta lizitazioari hasiera ematea.

2. Aprobación del procedimiento para la contratación de los servicios de la Banda Municipal de Música de Tolosa por procedimiento negociado sin publicidad, e iniciar la licitación.

Parte-hartzeak:

- ... Lehenik eta behin, alkateak Kultura, Festak eta Gazteriak 2019ko otsailaren 19an emandako irizpena azaldu die batzarkideei.
- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Dakarkigun gai hau beste pauso bat da, kostatzaileak, mantso goaz baina, pixka-pixkanaka, ikusten ari gara helburua betetzen. Bertan Udal Musika Bandako kideen eskaerak jasotzen dira. Ea, lehenbailehen, legealdia hau amaitu aurretik bukatutzat ematen dugun gai hau eta hurrengo 25 urteetarako lotuta uzten dugun”.*
- ... Alkatea: *“Nik, egia esan, 2018. urtea gogoratuko dut Tolosako Musika Bandaren eta Tolosako udalaren arteko harremanak finkatzeko izan genituen zailtasunak gainditzeko urtea bezala. Horrela gogoratuko dut. Kontuan izan da bai, udal ordezkariak, bai Tolosako Musika bandak ere, harreman jarraitua izatea nahi zuela bere jarduna herrikoia eta tolosarra delako. Gaur egungo ordenamendu juridikoak esaten zuen ez zela formula egokia dirulaguntzaren bitartez izatea harreman hori eta horregatik abenduaren hasieran Udalak, aho batez, aitortu zuen Tolosako Musika Banda berariazko zerbitzu publikoa. Beraz, hemendik aurrera Tolosako Udal Musika Banda badugula esan dezakegu. Tolosako Musika Bandaren eta Udalaren arteko harreman hori horrela izateko gaur jada prozedura martxan jartzen da. Ez da lehenengo aldia esaten dudala, baina bai balioan jarri nahiko nuke, Tolosako Udal Musika Bandako kideak izan duten jarrera eta bereziki izan duten inplikazioa gai korapilatsu honi irtenbide bat emateko.”*

**KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA BATZORDE INFORMATIBOAREN
2019KO OTSAILAREN 19KO IRIZPENA**

1.- AURREKARIAK

Lehenak. Tolosako Udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuko buruak 2019ko otsailaren 14ean igorritako txostenean, Tolosako udal musika banda kontratatzeko zerbitzu kontratuaren egokitasuna eta beharra zehazten ditu. Horren arabera, *“Tolosako musika banda guztiz errotuta dagoen zerbitzua da”* eta *“Musika*



TOLOSAKO
UDALA

bandak bere historian zehar herriaren kultur-bizitzan funtsezko garrantzia izan du, arrazoi askorengatik. 1) Herriko jai nagusietan eta bestelako jai-egunetan izan duten esku-hartzeagatik, dantza eta dibertsiorako nahiz ekimen ofizialen protokoloaren lagungarri. Ezinezkoa da irudikatzea Tolosako Iñauteriak edo San Joan jaiak musika-bandarik gabe. 2) Tolosaren identitatearen parte garrantzitsua den ondare musikaren zaintza interpretazioarekin,... 3) Tolosako musikarientzako bere dohainak eta prestakuntza garatu eta herritarren aurrean erakusteko tresna izan delako, kontzertu, kalejira eta dantzaldietan. 4) Tolosa Musika Eskola bere harrobi bihurtu duelako historian zehar, honek musika ikasleentzat suposatzen duen pizgarri balioa oso garrantzitsua delarik...".

Aipatutako txosten horrekin, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoaren plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), Zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu: hala nola, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako Baldintza Administrazioen Pleguan, kontratuaren xehetasunak aipatzen dira, hala nola kontratuaren xedea, CPV kodea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, oinarrizko lizitazio aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratua gauzatzeko epea, gutxieneko lantaldea, egin beharreko lanak, esleipendunen esku jartzen den dokumentazioa, hizkuntza-irizpideak eta esleipen irizpideak. Halaber, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen ditu. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan: *"1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik. 2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen".*



2.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Baldintza Administratibo Zehatzen agiria osatzeko oinarritzko datuen inguruko txostena.
- Departamentuko Arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio Tekniko Zehatzen Plegua.
- Baldintza Administratibo Zehatzen Agiria.

Halaber, espeditentea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du: *“Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obra edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.”*

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **3.675.000,00 eurokoa** da. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espeditentean.

Horiek horrela, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikuluan hau xedatzen du: *“1. Hauek dira erregulazio harmonizatuko kontratuak: obra-kontratuak edo obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, baldin eta haien balio zenbatetsia, 101. artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu, ondorengo artikuluetan aipatzen diren zenbatekoetako edo handiagoa bada eta erakunde kontratatzailea botere adjudikatzailea bada.*



Erregulazio harmonizatuko kontratuzat joko dira erakunde horiek diruz lagunduak diren eta 23. artikuluan aipatzen diren kontratuak ere. Kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (221.000 €), araudi horri lotzen zaio, beraz, **erregulazio harmonizatuko kontratua** dela esan daiteke. Halaber, **kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da**, aipatutako Legearen 44.1 artikulua a) idatz-zatiak xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen duelako.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren 11. klausulan jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak eta kontratatze gaitasuna, SPKLak bere 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.*

3.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLak bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditentak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditentak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta*”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*



Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditante hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.

4.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzu kontratua gauzatzeko **HOGUITABOST (25) URTEKO** epea ezarri da, 2019ko urtarrilaren 1ean hasiz eta 2043 urteko abenduaren 31 bitartean; nahiz eta esleipendunari inolako kontratu-betebeharrik ezingo zaio eskatu harik eta kontratua formalizatu arte.

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 147.000,00 euro urtean, beraz, 25 urteetan **3.675.000,00 euro BEZa salbuetsita**, BEZaren 102/1992 Foru Dekretuko 20.1.14 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren zerbitzuak, **0800.227.04.33412** aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko direla. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

5.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPK Lan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *"2. Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta IV. eranskinen zerbitzu bereziak emateko kontratuak; izan ere, horiek azken prozedura horren arabera adjudikatuko dira. 168. artikuluan ezarritako kasuetan, publikatutako gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da; 167. artikuluan aurreikusitakoetan, lehia-elkarrizketara edo **lizitazio negoziatua** jo ahalko da, eta, 177. artikuluan aipatutakoetan, azkenik, berrikuntzarako elkartzeko prozedura erabili ahalko da."*

Aipatutako 168. artikuluan, Publikatutako gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak zehatzen dira eta hau xedatzen da: *"Kontratazio-organismoek soilik honako kasu hauetan adjudikatu ahalko dituzte kontratuak alde aurretik lizitazio-iragarkia argitaratu gabe prozedura negoziatuaren bitartez:*

a) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, honako kasu hauetan:

1.ª Prozedura ireki edo prozedura murriztu baterako inongo eskaintzarik aurkeztu ez denean, eskaintza egokirik aurkeztu ez denean, parte hartzeko eskaerarik ez dagoenean edo parte hartzeko eskaera egokirik ez dagoenean, baldin eta kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira; gainera, inongo



kasutan ezingo da handitu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, ez eta aldatu ere ordainketarako sistema, eta txosten bat bidali beharko zaio Europako Batzordeari, azken horrek hala eskatzen duenean. Eskaintzak desegokitzen joko dira kontraturako egokiak ez direnean, nabarmenki ez direlako gai muntako aldaketarik egin ezean kontratazio-organoaren beharrezkoak eta baldintzak betetzeko, kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan zehaztutakoak. Parte hartzeko eskariak desegokitzen joko dira baldin eta kasuko enpresaburua baztertuta geratu behar bada edo gera badaiteke lege honetan ezarritako arrazoiengatik edo ez baditu betetzen kontratazio-organoak ezarritako hautapen-irizpideak.

2.^a Obrak, hornidurak edo zerbitzuak enpresaburu jakin bati baizik ezin zaizkionean enkargatu honako arrazoi hauetako batengatik: bakarra den eta Espainiako Ondare Historikoan ez dagoen artelan bat edo errepresentazio artistiko bat sortzea edo eskuratzea izatea kontratuaren objektua; arrazoi teknikoengatik lehiarik ez egotea; edo eskubide eskusiboak babestu behar izatea, horien barnean direla jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak.

Arrazoi teknikoengatik lehiarik ez egoteko kasua eta eskubide eskusiboak babesteko kasua, horren barnean dela jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak babestekoa, beste aukera edo ordezkoko arrazoizkorik ez dagoenean aplikatuko dira soilik, eta lehiarik ez egotea ez denean kontratua adjudikatzeko baldintzen eta irizpideen konfigurazio murriztaile baten ondorioa.

3.^a Kontratua isilpeko edo erreserbatu deklaratu denean, edo kontratua egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak ezarri behar direnean indarrean den legeriaren arabera, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestu behar direnean eta halaxe adierazi denean 19. artikuluan 2. apartatuaren c) letran aurreikusitakoaren arabera.

b) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, honako kasu hauetan:

1.^o Kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko urgentzia batek eskatzea kontratua lehenbailehen egikaritu dadila, 119. artikuluan arautzen duen presako izapidetzea aplikatuz lortu ezin delako.

2.^a 167. artikuluan e) letran aipatzen den egoera gertatzen denean, baldin eta negoziazioan sartzen badira aurreko prozeduran kontratazio-prozeduraren baldintza formalekin bat datozen eskaintzak aurkeztu dituzten lizitazile guztiak, eta, betiere, kontratuaren hasierako baldintzak ez direnean funtsean aldatzen. Nolanahi ere, ezingo da inoiz lizitazio-prezioa handitu edo ordainketarako sistema aldatu..."

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **lizitazio-iragarkia argitaratu gabe prozedura negoziatuaren bitartezko jardunbidea** erabiltzea, aipatutako artikuluan a). 2.^a idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz



Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena egiteko ez dira balorazio irizpideak kontuan izango, hau zehazten baita Baldintza Administrazioen Pleguan: *“Plegu honen helburua da publizitate-rik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez enpresari jakin bati, kasu honetan TOLOSAKO MUSIKA BANDA elkarteari, esleitu ahal izatea zerbitzu-kontratu bat, berarekin dituen herritarren aldeko zuzeneko prestazio batzuk; eta ez dagoenez beste pertsona juridikorik plegu honetako baldintzak betetzen dituenik, ez da eskaintza baloratuko, baizik eta egiaztatu baino ez da egingo TOLOSAKO MUSIKA BANDAK betetzen dituela plegu honetan exijitutako baldintzak eta konpromisoak.”*. Horrenbestez, Plegu bereko 11. klausulan xedatutakoarekin bat etorritik, *“Eskaintza egitera gonbidatuko den entitateak gaitasun juridiko eta jarduteko osoa izan behar du, eta, era berean, behar den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, kontratu honetako prestazioa emateko. Bestalde, ez da sartuta egongo SPKLren 71. artikuluko kontratatze-ko debekuren batean. Kaudimena egiaztatu eta ebaluatu behar da 15-5^a klausulan xedatutako bitartekoak erabilita.”*

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5, azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

6.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espeditatearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLren 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

7.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere: *“2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organoa den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.”*. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen direnez, **eskumena Osoko Bilkurarena da**. Hala ere, kontratuaren eraginkortasuna bermatzeko eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 22.4



TOLOSAKO
UDALA

artikuluari xedatutakoarekin bat etorriz, proposatzen da, Osoko Bilkurak, kontratazio-espeditentea onartu eta lizitazio-prozedura hasi ondoren, Tolosako Udaleko alkate-udalburuari eskuordetuko dizkio kontratazio-organo gisa dituen eskumenak; eskumen horiek lizitazio- eta esleipen-prozedurari eta kontratuaren egikaritzeari dagozkio, salbu eta aurretiazko azkentzea eta behin betiko harrera.

Beraz, Tolosako udaleko udalbatza plenoari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

IRIZPENA

Lehena.- Tolosako udal musika banda kontratazeko zerbitzu kontratuaren espeditentea onartzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez.

Bigarrena.- Lizitazioari hasiera ematea eta horretarako lizitaziorako oinarriko aurrekontua onartzea: 147.000,00 euro urtean, beraz, 25 urteetan 3.675.000,00 euro BEZa salbuetsita, BEZaren 102/1992 Foru Dekretuko 20.1.14 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Kontratazio honen xede den zerbitzua gauzatzeko gehieneko epea hogeitabost (25) urtekoa izango da, 2019ko urtarrilaren 1ean hasiz eta 2043 urteko abenduaren 31 bitartean; nahiz eta esleipendunari inolako kontratu-betebeharririk ezingo zaio eskatu harik eta kontratua formalizatu arte.

Laugarrena.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

Bosgarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (lizitazio-iragarkia argitaratu gabe prozedura negoziatuaren bitartezko jardunbidea) eta dagokion iragarkia argitaratzea Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (DOUE) eta Tolosako udaleko kontratatzailearen profilean, lizitatuzaileek euren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, lizitatzeko gonbita jasotzen denetik.

Seigarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 22.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Osoko Bilkurak, kontratazio-espeditentea onartu eta lizitazio-prozedura hasi ondoren, Tolosako Udaleko alkate-udalburuari eskuordetzea kontratazio-organo gisa dituen eskumenak; eskumen horiek lizitazio- eta esleipen-prozedurari eta kontratuaren egikaritzeari dagozkio, salbu eta aurretiazko azkentzea eta behin betiko harrera.

Zazpigarrena.- Erabaki horiek Kontuhartzaitza Departamentuari jakinaraztea.

Kultura, Festak eta Gazteria Batzordekiek, 2019ko otsailaren 19an, 08:00etan, proposamena onartzearen aldeko diktamina jaulki dute, aho batez.



TOLOSAKO
UDALA

ALDEKO BOTOAK: Begoña Tolosa, Nuria Carbonell, Nerea Letamendia eta Igor Ezenarro.

EZ BERTARATUAK: Kristina Pelaez, Cristian Fernandez.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udal Musika Banda kontratatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko jardunbidea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, eta lizitazioari hasiera ematea.

3. Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoaren ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onarpena.

3. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de los precios públicos por prestación de servicios públicos y realización de actividades.

Parte-hartzeak:

- ... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: *“Prezio publiko baten aldaketa proposamen hau Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentutik jaso genuen. Bi aldaketa proposatzen dira, alde batetik, gaur egun Ordenantza Fiskaletan azaltzen zaigun prezio publikoaren atalean, Txuleta Festaren tiketaren prezioa igotzea 5 euro, 45 €tik 50 €etara. Prezio igotzearen arrazoi nagusia da azkenengo hamarkadetan inolako igoerarik ez duela izan eta antolamendu gastuak handiagoak direla. Bestetik, aldatzea Txuleta Festaren izena eta jartzea Haragi, gaur egun ezberdin egiten delako.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Aldeko bota emango dugu baina iruditzen zaigu pixkana-pixkana Haragi Festaren prezio publikoak hurbildu beharko lukeela benetako kostuetara. Agian, urteetako plan bat egin beharko litzateke horretarako.”*



TOLOSAKO
UDALA

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO OTSAILAREN 19KO IRIZPENA

Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuak, eta baita “Haragi/Txuleta-aren festa” antolatzeko biltzen den mahaiak ere, azken bi urteotan planteatu du otorduen prezio igoera, ikusirik inguruan egiten diren antzeko beste otordu batzuetan egin dela eta urtetik urtera otordu honen antolaketak gastu handiagoak sortzen dituela.

Hori horrela, aurten proposatzen du 5,00 euro igotzea, hau da otordua 50,00 eurotan jartzea.

Tasa eta prezio publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990ko Foru Arauaren 26.2 artikulua honela dio:

“2. Prezio publikoen zenbatekoa finkatu edo aldatzeko proposamen guztietan, memoria ekonomiko-finantziarioa egin behar da prezioen zenbatekoaren justifikazioari buruz eta kostuen estaldura finantziarioaren mailari buruz.”

Bestalde uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 47. artikulua honakoa dio:

“1. Prezio publikoen zenbatekoa, gutxienez, zerbitzu edo jardueraren kostuaren adinakoa izango da.

2. Bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arazoak daudenean, aurreko apartatuan jasotako mugatik beherako prezio publikoak jarri ahal izango ditu udalerriak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat.”

“Haragi” ren antolakuntzaren gastu zuzenak 19.859,47 euro izan ziren 2018an. Otordua bi txandatan izanik, 150 pertsonakoa txanda bakoitzean, otordu bakoitzeko kostu estimatua 66 eurokoa da.

Baina, festa hau puntuala da, ez da, beraz, Udalak urte osoan zehar egindako zerbitzu baten prezio publikoa, baizik eta urtean behin antolatzen den festa konkretu batena, ezin dena jatetxe zein tabernarientzat konpetentzia bezala hartu.

Bestalde, “Haragi”ren helburuen artean hauek nabarmendu ditzakegu:

- Euskal sukaldeari eta euskal sukaldariei nazioarteko proiektzioa ematea, Tolosa erreferentzia izanik.
- Haragiaren kontsumo jasangarria sustatzea, ekoizleen lana aintzat hartuz.
- “Brasa” zein “parrilla”ren profesionalen topagunea izatea.
- Tolosarrei esperientzia gastronomikoa eskaintzea.



TOLOSAKO
UDALA

Hauen arabera, badaude kultur eta herri onurako arrazoiak kostuen beherako prezio publikoak ezarri ahal izateko.

Iñaki Irazabalbeitiak prezioa kostuen azpitik jartzeko kontrako iritzi pertsonala eman du.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, proposamena bozkatu egin da:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa

Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa

Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa

Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa

Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Abstenitu

Beraz, batzordeak ondorengo hau diktaminatu du:

Lehena.- "Txuleta-ren festa" izena aldatzea, eta bere ordean "Haragi" jartzea Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalaren 3.1.3 eranskinean.

Bigarrena.- Aipatutako 3.1.3.eranskineko otorduetako txartelaren prezio publikoa 50,00 eurotan ezartzea.

Ondorioz, eranskina honela geratu da:

3.1.3. HARAGIaren otordua	3.1.3. Comida y cena "HARAGIA"
Haragiaren bazkari eta afarien prezio publikoa ordaindu behar da eskatutako zerbitzu bakoitzagatik.	El precio público de las comidas y cenas de "Haragia" se satisfarán por cada servicio solicitado.
Prezio publiko horren sortzapena txartela erosten den momentuan bertan gertatzen da.	El devengo de dicho precio público es el momento de la compraventa del ticket.
Dagokion zenbatekoa ez da inondik inora itzuliko.	No cabe la devolución del importe correspondiente en ningún caso.

3.1.3.HARAGIaren OTORDUAK	3.1.3.COMIDA Y CENA "HARAGIA"	EUROAK
Otorduetako txartela	Ticket para comida / cena	50,00

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoen ordenantza fiskalaren aldaketari.

4. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onarpena.

4. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: *“Hirigintza departamentutik proposamen bat jaso da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskala aldatzeko. Joan den astean egin genuen Ogasun batzordean eztabaidatu ondoren bertan bi proposamen egin ziren.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren 10. artikulua aldatzea, ondorengo bi puntu hauek erantsiz. Alde batetik 4. puntu bezala 10. artikularen barruan honako hau: “4. % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira.”. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da. batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Hemen aplikatzen ari garena da uztailaren 5eko 11/1989 Foru arauak non bere 9. artikuluen xedatutakoak uzten digu hobaria 5%95ekoa eta guk aplikatu duguna, handiena. Bestea, 5. puntu bezala eranstea hurrengo: “5. Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria. Hemen ere Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.” Azkena , 10 .artikulua errepasatu genuenean ikusi zen gaur egun indarrean dauden ordenantza fiskaletan 4 bat akats zeudela, batzuetan euskara eta gaztelez jarritakoa ez zetorren bat, eta zuzenketa hauek egitea, diktamenean azaltzen direnak. Hauxe da gure proposamena.”.*



- ... Alkatea: *"Diktamenean bi proposamen daudenez, bozketa banan-bana egitea eskatu da, baina aurretik bakoitzaren defentsa egingo dugu."*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu) : *"Bi proposamen ezberdin egiten ditu udal gobernua. Lehenbizi esan behar da azkar eta bote printon etorri direla. Guk honen berri izan genuen Ogasun batzordea ospatzeko momentu berean entregatu zitzaigun dokumentazioa, bai kontu baten buruz eta bai beste buruz, eta ez zaigu hori egokia iruditzen. Ez dakit legezkoa den, ez dakit 48 ordu lehenago dokumentazioa ez ote banatu behar. Horretaz aparte, uste dut ez direla taktika horiek onartzekoak eta Gobernuak egin beharko lukeela gogoeta batzordeetan entregatzen duen dokumentazioa garaiz entregatzeko eta ez orain bezala, bi gauza inportanteen inguruan, azken momentuak berri ematea batzordean. Hiru puntu daudela ezberdinak esan dut, bi bozketetan egingo dugu. Gu aldaketa teknikoaren inguruan ez dugu arazorik koherentzia eman behar zaiolako testuari. Bestea da, bata Visesaren eskariz araubide orokorreko eta bereziko etxe bizitzaren sustapenean ICIOren hobari hori ematea. Horri buruz izan genuen eztabaida batzordean bazegoelako kontraesana lehengotik udaletxean aplikatzen zen irizpide batekin. Araubide berezikoei %ko 100ean salbuetsi zitzairen eta gure proposamena zen araubide arruntekoei %95ean, beraz ez zegoen. EHBildu ohartu zen arazoetaz eta guk proposatu genuen biak berdin izan behar zuela izan, ekinbide ofizialeko eta babes ofizialeko etxeak baldin badira, biak trataera bera behar zuela. Horrela erabaki zuen batzordean eta horren aldeko botoa emango dugu ez zaigulako etxebizitza babestua sustatzea udalaren bete beharretako bat dela. .Beste kontuari buruz galdera sortzen zaizkigun, hain zuzen ere Tolosako 57 eraikini edo elementuei dagokien erabaki bat eta klase askotako elementua daude. Esaterako Zezen Plaza dago bertan, Araxes paper fabrika, Urkizuko iturria, hainbat baserri, klase askotako elementuak dira eta bat batean jartzen zaigu mahai gainean horietan egiten diren obretan %65ko hobaria eman behar zaiela. Orain galdera da, hau zer da, Kafe Frontoikoaren lehiaketaren kontura? eta horrela baldin bada, bi galdera, hau zer izan da Udalaren ekimenez edo lehiaketara aurkez litezkeen batzuen eskaera? Eta hori da egingo genituzkeen galderak aurrera jarraitu baino lehenago".*
- ... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: *"Alde batetik aipatu izan dituzun gauzak kontutan harturik, Ogasun batzordean bertan komentatu izan genuen eta barkamena eskatu genuen, nolabait entregatu ez genuelako garaiz dokumentazioa. Nik uste daramagula laster lau urte Ogasun batzordean hilabetero egiten da Ogasun batzordeko bat ez dut uste, uste dut kontatuko nituzkeela eskuzko behatzetik ez dugun garaiz entregatu dokumentazioa. Egun horretan barkamena eskatu genuen, izan ere, arrazoi osoa zenuen. Bigarrena aipatu duzunarekin, VISESAkoa nola den kontatu duzu gertatukoa eta horrela da, ez daukagu ezer esaterik. Hirugarrena esan duzu jartzen ari garen edo kasu honetan eskatzen duguna, ordenantza fiskaletan azaltzea % 60ko hobaria. Hor ikusten dudana da, alde batetik, plan orokorrean daudela baita ere hainbat katalogatuta dauden ondare bezala. Horretaz aparte, gaur egun alde zaharreko eremu batzuk babestuta daude daukaten %60ko hobaria onartzen dutena da % 2a ICIOa ordaintzen dute edozein obra egiten duenean. Guk justiziakoa ikusten genuen, hainbat eremu eta beste hainbat eraikuntza baita ere herri barruan daudenak, Frontoia eta baita ere Zezen plaza eta baita landa eremuko beste hainbat baserri eta beste hainbat eremu. Usten genuen zela justiziakoa. Bestalde, egin dugu ez bakarrik Tolosan daukagun ondare*



katalogoa eta baita ere ireki dugu Diputazio eta Eusko Jaurlaritzan dituen katalogoetan dauden hainbat eraikuntza. Baita ere babes hori edukitzeko eta denak aurkitzeko nolabait plano berdinetan. Esaten duzunean ea hori Frontoiarekin lotuta dagoen edo Udalaren ekimenez den, nonbaitetik ez dakit nondik atera den baina Udalaren ekimena da eta horrek laguntzen badigu Frontoia aurrera ateratzen hobea."

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu) : *Eskerrik asko informazioarengatik Begoña. Gure inpresioa da hau korrika eta presaka ari garela egiten. Hemen gauden 57 elementu hauek tentuz eta poliki aztertu behar direla, ezin dela astebetean di-da batean horrelako erabakirik hartu. Gure susmoa da Kafe Frontoian aurkez litezkeen balizko lizitatzailer bat egon daitekeela honen atzean, susmoa da. Agian oker nago, edo litekeena udalaren jarrera nolabait aktibitate komertzial laguntzeko aldetik batetik eta ez zaigu erabaki horrelakoak hartu daitezkeen di-da batean eta kasu puntual batetik kasu orokorra bat egitea eta honek behar duela azterketa lasaiagoa, ikusi zeintzuk diren elementuak, sakona, ondorioa aztertu. lizan ere, baserriak ere badaude, etxebizitza konpondu balute trataera bera izan beharko lukeela. Iturri bat baino gehiago dago. Honek behar du azterketa lasaia, ez astebetean egin eta astebetean erabaki. Beraz, gure eskaera da hau mahai gainean uztea, kontutan izan da gure botoa aurkakoa behartuta izango dela."*

... Alkatea: *"Azken bolada honetan susmo asko daukazue. Uste dut Begoñak nahiko argi azaldu duela. Erraz bideak eskatzen ari direla Frontoiako lizitazioaren informazioaren bila etorri diren pertsonak. Egia da eskaerak egon direla. Hala eta guztiz, ez da planteatzen horregatik, hori da, zure komilaren arteko akusazio tapatu hori egin nahi duzuen orain. Ad hoc ez da planteatzen laguntza bat, ad hoc Fronton kafetegirako, baizik eta kultur eta ondare babesa duen eraikin guztietarako, bai Udalaren ondare katalogoan daudenak, baita ere udala ez gainera administrazioetan Euskal Kultura legeak babestutako horietan. Hor dago zerrenda bat. Ez dut ulertu ondo klase askotako pelajea, edo zer esan duzun, dira eraikinak, iturriak, baserriak eta eta izango duten orain arte Alde Zaharreko babestutako eraikinak izan duen trataera berdina. Beraz, orain arte bazen egoera diskriminatorioa zena eta hemendik aurrera babes berdina duten eraikinak izango dute trataera berdina. Beraz bozketara pasako ginateke."*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Eskatzen duguna da honen denbora behar duela eta ezin dela astebetean papera jarri mahai gainean eta erabakia hartu behar du. Honek behar du Beste gauza batzuekin denbora hartzen da eta honekin ez dugu patxadarik. Hori da esaten duguna, ez dugu akusaziorik egiten baizik eta konstatazio bata. Gaur zortzi, goizeko 11etan Ogasun batzordean eman zitzaigun paper hau, handik hoge minutuetara erabaki bat hartu izan behar genuen, abstenitu egin ginen, gure kezkak azaldu genituen orduan, eta aste bete geroago hementxe dago, Osoko bilkuran dago. Ez zait iruditzen hemen 57 elementu desberdinei eragiten dieten erabaki bat, egon liteke eta onartzen dugu egon daitekeela nolabait kontraesan bat alde zaharrean aplikatzen diren irizpideekin, baina horrelako irizpide potoloa dela 57 elementu ezberdinei eragiten die irizpide handi bat aldatzea astebete batean, iruditzen zaigu presa supersonikoa jartzea horrelako supersonikoa behar ez duen kontu bati. Hori esan dugu, besterik ez, ez dugu inor ezertaz akusatu."*

... Alkatea: *"Zuei presa supersonikoa iruditzen zaizuen bezala, guri iruditzen zaigu*



erabateko koherentzia duen proposamen dela. Eta berriz errepikatuko dut, lehen diskriminazioa zegoena edo trataera ezberdineko kontua zegoena eta orain zabaltzen dena herri guztira. "

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Zerrenda honetan dago eraikin bat momentu honetan lehiaketa publikoan dagoena ustiatzeko. Ustiapen pribatu bat, non bertan parte hartu behar duten, hartuko duten edo hartu dezaketen ustiatzaileak zenbaki batzuk ateratzen ari dira, rentabilitate ekonomikoa areagotzeko. Rentabilitate ekonomiko hori ateratzeko zenbaki horietan erabaki honek zuzen zuzenean eragiten du. Azken finean, gehiago edo gutxiago, Kontuhartzaitzatik esango liguke, baina gutxi gora behera 60 mila euro, buruz egin dut kalkulua, lizitzaile pribatu horri aurrezte eta Udalak ondorioz ez jasotzea. Tolosar guztiok. Izan ere diru hori erabili daiteke gauza eta behar eta tolosarrei laguntzeko. Bat, ez zait egokia iruditzen martxan dagoen lizitazio bati eragiten dion neurrian horrelako erabakia hartzea, orain hartzea lizitazioa martxoaren 15ean bukatzen denean. Eta barkatuko didazue, baina ni Udal gobernuko pertsona batek deitu ninduen hau Kafe Frontoiarengatik egiten zela, sentitzen dut, baina esan beharra daukat. Agian Iñakik ez du esan, nik esaten dut, ni pertsona batek deitu ninduen. Horrelako eskaera bat enpresak batek egitea zilegi da baina ez zait zilegi iruditzen momentu honetan lizitazioa martxan dagoela hona ekartzea. Iruditzen zait horrelako erabakia patxadaz, soseguz hartu behar dela eta ez oraindik ez dakigunean aurkeztuko diren edo ez diren, zenbat aurkeztuko diren edo ez, haietako batek mahai gainean jarri duen eskaera bat izateagatik. Beraz, erabakia hau hartzen baldin bada da, ez naiz sartuko egokia den edo ez, lehiaketa hau ebatzi bitartean ez da hartu behar. Uste dut gardentasunaren izenean eta guk horregatik planteatzen genuen mahai gainean uztea. Ez da beste ezer Uste dugu gardentasunaren izenean ez dela orain hartu behar den erabaki bat."

... Alkatea: "Berriz errepikatuko dut. Lehenago esan dut. Pertsona batek deitu zizun eta bueno, oso ondo ez dakit konbertsazio pribatuak plenoan esan behar dituzuen orain, ondo dago, e, ez dago bat ere eragozpenik. Erraz bideak ematen direla, horrela zentzuk honetako eskabideak egon direlako, eta hala ere ez dela neurri bat ad hoc Fronton kafetegirako baizik eta, babestuta dauden ondare guztietarako. Lehen bazegoela trataera ezberdin bat eta hemendik ez dela izango. Eta horregatik kanpo eta lizitazioaren inguruan egin duzun puntualizazio horretan, egia da, martxoaren erdialdean amaitzen dela lizitazioa, Frontoiko lizitazioan aurkeztu diren esleipendunak ICIOaren % 5arekin aurkeztu beharko dute bere bideragarritasun plana. Izan ere martxoaren 15a baino lehenago ez da erabaki hau gauzatuko. Beraz, erabaki honek izango duen gerorako eragina jakinaraziko da, publikoa izango da, egon litezkeen lizitzaile guztiak jakingo dute, inongo diskriminazio egoerarik sortu gabe."

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Baina beraien aurrekontu edo biabilidade plana % 5arekin aurkeztuko dute, %5arekin hau da, 60 mila euro horiek gehiago jarriz biablea izango da, ondorioz, guk onartzen ari garena da 60 mila euro, edo 70, dena delakoa, gutxi gora, gero kondonatzea, hau da, beraiek lizitazioa den onura pribatu hori aurkeztuko duten baliabide plan horretan aurreikusiko dituzte 60 mila euro ordaintzea udalari eta gero bueltan jasoko dituzte ordenantza honen aldaketa behin betikoa den neurrian eskatuko dutelako hobetze bat."



TOLOSAKO
UDALA

- ... Kontuhartzailea: *“Momentu honetan behin behineko moduan onartuko da, gero, argitaratu, epe batean egon ondoren behin betiko onartuko da. Baina kasu zehatz batean aplikatzeko berriro Osoko bilkurak onartu behar du juxtu kasu horretarako. Hau da bakarrik aterki bat babesa behar dutenentzat, baina gero zehaztuko da, justu kasu honetan bakoitzak izango du aukera esateko nahi duena, baina momentu horretan. Hau eskatzeko lizentziarekin batera eskatu behar dute.”*
- ... Alkatea: *“Bakoitzak hartuko du bere erabakia daukan iritziaren arabera eta bere arrazoiak eman, orain bezala, ahaztu gabe kontzesio administratiboa bat dela, ez dela pribatua eta beste hainbat adierazle, eta tokatzen denean egingo dugu. Orain hartzen dugun erabakia da babesa duten horiei trataera berdina ematea Tolosako udalerrri guztian.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Hau da bidea irekitzea hurrengo pausoa eman ahal izateko. Ez esan orokorra denik eta hartzen duzuen gauza oso zehatz bati erantzun nahi duzuelako batek egin duelako eskaera bat. Guri ez zaigu iruditzen egokia.”*
- ... Alkatea: *“Hau orokorra da. beste prozedura bezala, orokorra. Bozketara pasako gara eta bakoitzak bozka dezala iruditzen zaiona.”*

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO OTSAILAREN 19KO IRIZPENA

Hirigintza departamentutik proposamen bat jaso da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskala aldatzeko. Hain zuzen ere, ondorengo bi hobari berri hauek aplikatzea eskatzen da:

- Araubide orokorreko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, baldin eta VISESaren instantziaz egin badira, %95eko hobaria.
- Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, baldin eta ez badaude eranskinen 2. puntuaren arabera, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria.

Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak honakoa dio 5. artikuluan:



TOLOSAKO
UDALA

"5. artikulua.

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean:

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin."

Honen arabera, eskatutako hobariak aplikatu daitezke, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Proposatzen den lehendabiziko hobariari dagokionean, Iñaki Irazabalbeitiak galdetu du ea VISESaren instantziaz egiten ez diren beste hainbat obratan, adibidez beste administrazio publikoak egiten dituztenak, ezin al da hobari bera aplikatu.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamenaren testua aldatu da, honela utziz:

" % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo dozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira.

Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin."

Proposatutako bigarren hobariari dagokionean, Iñaki Irazabalbeitiak denbora gehiago eskatu du gaia hobeto aztertzeko.

Bestalde, Kontuhartzaitzak ondorengo lau zuzenketa tekniko hauek proposatzeko aprobe txatu du:

Lehen zuzenketa:



TOLOSAKO
UDALA

Eranskinaren 3. puntua ezabatzea, "nekazari profesional" edo "nagusiki nekazari" kalifikazio dutenentzat ezarritako hobariak jasota daudelako ordenantzaren 10. artikuluan, 2 eta 3. puntuetan hain zuzen ere.

Bigarren zuzenketa:

15. artikuluan, 4. puntuan, falta den euskarazko bertsioa erantsi:

- 4. *"Autolikidazioaren bidez kudeagarria".*
- 4. *"Se podrá gestionar mediante autoliquidación".*

Hirugarren zuzenketa:

16. artikuluan, falta den erderazko bertsioa erantsi:

- *"Isiltasun administratibo positiboaren aplikazioagatik emandako lizentziak, espresuki emandakoaren balio bera izango du zergaren likidaziorako".*
- *"Las licencias concedidas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo valor que las concedidas expresamente, en cuanto a la liquidación del impuesto".*

Laugarren zuzenketa:

17. artikuluan euskarazko bertsioan falta den zatia erantsi:

- *"Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, hala nola, zerga urrapenen kalifikazioaz eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikusitakoa erabiliko da, baita ere 15/1989 Foru Arauean, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko zergari dagokionez".*
- *"En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y la Norma Foral 15/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras".*



TOLOSAKO
UDALA

Iñaki Irazabalbeitiak galdetu du proposamena puntuz-puntu bozkatzeko aukera badagoen, dena batera egin beharrean.

Hau dela eta, bozketarako bi proposamen bereizten dira:

Proposamena 1

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren 10. artikulua aldatzea, ondorengo 4. puntu berri bat erantsiz:

“4. % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira.

Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

- Aldi berean, eranskinaren 4. puntua ezabatu, aurreko puntuan jasota geratzen delako.

- Eranskinaren 3. puntua ezabatu, “nekazari profesional” edo “nagusiki nekazari” kalifikazio dutenentzat ezarritako hobariak jasota daudelako ordenantzaren 10. artikuluan, 2 eta 3. puntuetan hain zuzen ere.

- 15. artikuluan, 4. puntuan, falta den euskarazko ondorengo testua erantsi:

“4. Autolikidazioaren bidez kudeagarria.”

- 16. artikuluan, falta den erderazko ondorengo testua erantsi:

“Las licencias concedidas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo valor que las concedidas expresamente, en cuanto a la liquidación del impuesto”.

- 17. artikuluan euskarazko bertsioan falta den zatia erantsi, artikulua honela utziz:

“Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, hala nola, zerga urrapenen kalifikazioaz eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenez, Foru Zerga Arau Orokorrean



TOLOSAKO
UDALA

aurreikusitakoa erabiliko da, baita ere 15/1989 Foru Arauean, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko zergari dagokionez”.

Lehendabiziko proposamena bozkatu egin da:

1. Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
2. Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
3. Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
4. Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
5. Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Proposamena 2

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren 10. artikulua aldatzea, ondorengo 5. puntu berri bat erantsiz:

“5. Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalez gairik administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria.

Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

- Aldi berean, eranskinaren 2. puntutik ezabatu “udal babesa duten lur ondasunetan egiten diren obrak”, aurreko puntuan jasota geratzen direlako.

Bigarrenengo proposamena bozkatu egin da:

- Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Abstenitu



Beraz, batzordeak hau diktaminatu du:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren ondorengo aldaketak egitea:

-10. artikulua aldatzea, ondorengo 4. eta 5. puntu berri hauek erantsiz:

“4. % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrak, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira.

Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

“5. Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria.

Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

- Aldi berean, eranskinaren 2. puntutik ezabatzea “udal babesa duten lur ondasunetan egiten diren obrak” eta 4. puntua osorik ezabatzea, aurreko puntuan jasota geratzen direlako.

- Eranskinaren 3. puntua ezabatzea, “nekazari profesional” edo “nagusiki nekazari” kalifikazio dutenentzat ezarritako hobariak jasota daudelako ordenantzaren 10. artikuluan, 2 eta 3. puntuetan hain zuzen ere.

- 15. artikuluan, 4. puntuan, falta den euskarazko ondorengo testua eranstea:



“4. Autolikidazioaren bidez kudeagarria.”

- 16. artikuluan, falta den erderazko ondorengo testua erantsi:

“Las licencias concedidas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo valor que las concedidas expresamente, en cuanto a la liquidación del impuesto”.

- 17. artikuluan euskarazko bertsioan falta den zatia erantsi, artikulua honela utziz:

“Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, hala nola, zerga urrapenen kalifikazioaz eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikusitakoa erabiliko da, baita ere 15/1989 Foru Arauean, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko zergari dagokionez”.

Hau dela eta, ordenantzaren 10. artikulua eta eranskina honela geratu dira:

<p>VII. HOBARIAK</p> <p><i>10. artikulua.</i></p> <p>1. Pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek % 60ko hobaria izango dute.</p> <p>Hobari hau etxebizitza eraikinetako zona komunetako sarrera-irteeren edota etxebizitza partikularren barruko irisgarritasuna hobetzeko egiten diren obrei aplikatuko zaie, beharrezkoak direla frogatzen diren heinean. Hau ez da aplikatuko etxebizitza eraiki berrietan.</p> <p>Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien zenbatekoaren gainean besterik ez da aplikatuko hobari hau.</p> <p>Udal teknikariek beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko dute, zehazteko irisgarritasun elementuak eta horrek eskatzen dituen obra minimo eta ezinbestekoak.</p>	<p>VII. BONIFICACIONES</p> <p><i>Artículo 10.-</i></p> <p>1.º Las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados, gozarán de una bonificación del 60 %.</p> <p>Esta bonificación se aplicará a las obras tendentes a la mejora de la accesibilidad para el acceso a las zonas comunes de los edificios de uso residencial así como en el interior de viviendas particulares que justificadamente lo requieran, excluyendo las viviendas de nueva edificación.</p> <p>Dicha bonificación se aplicará exclusivamente sobre el importe correspondiente a las obras que faciliten la accesibilidad.</p> <p>La plantilla municipal solicitará la información necesaria para delimitar los elementos de accesibilidad y las obras mínimas y absolutamente necesarias que la misma precise.</p>
--	--



<p>2. "Nekazari Profesional" eta "Nagusiki Nekazari" kalifikazioa dutenenentzat, % 95eko hobaria.</p>	<p>2.º 95 % de bonificación para los que tienen la calificación de "Agricultor/a profesional" o "Principalmente agricultor/a".</p>
<p>3. "Lanaldi partzialeko nekazari" kalifikazioa dutenenentzat, % 50eko hobaria.</p>	<p>3.º 50 % de bonificación para quienes tienen la calificación de "jornada parcial de agricultor/a".</p>
<p>4. % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira.</p> <p>Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.</p> <p>Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.</p> <p>Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.</p>	<p>4. Obras de nueva planta destinadas a viviendas de protección oficial tanto de régimen general como de régimen especial o viviendas sociales, siempre que sean de promoción pública directa o promovidas por sociedades dependientes de cualquier administración pública, bonificación del 95%.</p> <p>Esta bonificación se aplicará a la cuota resultante de la aplicación de la tipo de gravamen del 5 %.</p> <p>En cualquier caso, las obras tendrán que ser declaradas de especial interés o utilidad municipal, siempre que concurren circunstancias sociales, culturales o histórico-artísticas o de fomento del empleo.</p> <p>La declaración la realizará el Pleno del Ayuntamiento, por mayoría simple, y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo.</p>
<p>5. Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalez gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria.</p> <p>Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.</p> <p>Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.</p> <p>Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjeto pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.</p>	<p>5. Una bonificación del 60 % para aquellas construcciones, instalaciones y obras realizadas en los bienes y elementos que se consideren patrimonio urbanístico del municipio, recogidos dentro del Plan General de Ordenación Urbana de Patrimonio Catalogado aprobado por el Ayuntamiento, así como en los elementos protegidos por la Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco.</p> <p>Esta bonificación se aplicará exclusivamente cuando el tipo de gravamen sea del 5%, aplicándose a su cuota resultante.</p> <p>En cualquier caso, las obras tendrán que ser declaradas de especial interés o utilidad municipal, siempre que concurren circunstancias sociales, culturales o histórico-artísticas o de fomento del empleo.</p> <p>La declaración la realizará el Pleno del Ayuntamiento, por mayoría simple, y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo.</p>



ERANSKINA / ANEXO

1. Eraikuntza, instalazio eta obrak.	1. Construcciones, instalaciones y obras en general	5%
2. Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak. Alde Zaharreko eremuen esparru geografikoan egindako obrak, hau da, eremu hauetakoak: 7.1."Ezkerraldea", 7.2. "Elosegi Txapelak", 7.3. "Alde Zaharra", 9.1. "Plaza Euskal Herria eta ingurua" y 6.3 "Santa Klarako Errebala". Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinak obrak. Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren obrak, baldin eta VISESAren instantziaz egin badira.	2. Obras de nueva planta destinadas a viviendas de protección oficial de régimen general. Obras efectuadas en el ámbito geográfico de las áreas de Casco Antiguo, esto es, en los subámbitos 7.1."Margen Izquierda", 7.2. "Boinas Elosegui", 7.3. "Casco Viejo", 9.1. "Plaza Euskal Herria y entorno" y 6.3 "Arrabal de Santa Clara". Obras destinadas exclusivamente a explotaciones agropecuarias y bienes inmuebles vinculadas a la misma. Obras que se realicen en viviendas que se incorporen al Programa Bizigune, cuando dichas obras se hayan efectuado a instancia de VISESA	2%
3. Jarduera ekonomikoaren lotutako lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan	3. En caso de obras en locales con actividad económica, obras con coste inferior a 50.000 euros	0%

Bozketarako bi proposamenak banan bana bozkatu dira:

Lehendabiziko proposamenaren Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du lehendabiziko proposamena.

Bigarren proposamenaren Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Aurkako botoak: Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du bigarren proposamena.

5. 2018/18 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2018/2374 alkatetza dekretuaren jakinarazpena.
5. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2374/2018 del expediente de modificación de crédito realizada en la modalidad de crédito adicional (18/2018).

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakariak 2018ko aurrekontuari dagokion 18. kreditu aldaketaren espedientearen kontu eman du.

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO OTSAILAREN 19KO IRIZPENA

Lehendakariak, 2018ko aurrekontuari dagokion 18. kreditu aldaketarako espedientearen kontu eman du.

Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

Gastuen	Azalpena	Kredituak
---------	----------	-----------



partida		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0500.431.01.231.91 2018	ERAKUNDE AUTONOMOEI. IURREAMENDI EGOITZA	445.000,00	14.650,47	459.650,47
1 0700.223.01.441.20 2018	GARRAIOAK.TAXI ZERBITZUA	48.000,00	1.000,00	49.000,00
1 0700.221.99.162.10 2018	BESTELAKO HORNIDURAK. HONDAKINEN BILKETA	60.000,00	2.650,00	62.650,00
1 0800.481.01.334.12 2018	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELK. MUSIKA BANDA	114.000,00	1.588,76	115.588,76
GUZTIRA		667.000,00	19.889,23	686.889,23

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2018	DIRUZAINZA GERAKINA, GASTU OROKORRAK	19.889,23
FINANTZAKETA GUZTIRA			19.889,23

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira .

6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2018ko abenduaren 31koak:
2018/2359-2018/2394).
2019ko urtarrilaren 1etik 31ra
(2019/1-2019/172).

6. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:
Del 31 de diciembre de 2018
(2018/2.359- 2018/2.394).
Del 1 al 31 de enero de 2019 (1/2019-172/2019).

Alkatetzak 2018ko abenduaren 31n (2018/2.2359-2018/2.394) eta 2019ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

7. “Bizitzak erdigunera”., 2019ko martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko mozioa.

7. “Las vidas al Centro”. Moción en apoyo a la huelga feminista del 8 de marzo de 2019.

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Adostutako puntuekin erabat ados gaude Alderdi Sozialistatik, soilik, animatu emakume guztiei egingo diren ekintzetan eta, nola ez, greban parte-hartzea. Gizartearen konzienziarioa eta berdintasunezko*



gizartearen helburua lortzeko pausoa eman dezagun denon artean."

- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu) : *"Hemen irakurri den bezala, aurtengoan ere martxoaren 8aren aldarrikapen eguna iristear dago. Iazko uholdearen ostean aurtengoan ere berau errepikatzea espero dugu. Askotan esan izan ohi dut osoko bilkuretan eta baita ere bestelako foroetan zoritxarrezko egunak izaten direla horrela aldarrikatu beharrekoak, horrek adierazi nahi duelako ez dagoelako benetako berdintasuna eta borroka bat badagoela egiteko. Aurtengoan gehituko dut azken hilabeteetan entzun izaten diren diskurtsoak beldurgarriak ere badirela garai hauetan gaituztuta beharko lituzketen diskurtso batzuk berriro ere entzuten ari garela gure ustez errazegi. Alegia, garai batean agian esatera ausartzen ez ziren hainbat kontzeptu ere berriro ere entzuten ari gara hainbat eragile politiko eta bestelako aldetik. Beraz, adierazi nahi dudana da, hemen, behintzat, indarra adierazi behar dugula benetan demokrazian sinisten dugula, berdintasunean sinesten dugula, ez dagoela demokraziarik berdintasunik ez badago bi generoen artean, ezinbestean. Eta guk horrelako gizarte bat irudikatu nahi dugula. Bakarrik adierazi baita ere, hemen aipatu diren guztiz aparte, iritsiko direla beste hainbat lekuetatik baina Tolosaldeko Asanblada Feministak hainbat ekitaldi antolatu dituztela, 24 ordu direnez, gauerdiko 12etatik hurrengo hamabiak arte hainbat ekitaldi egongo dira, ez Tolosan bakarrik baizik eta Tolosaldeko hainbat herrietan, parte hartza animatu nahiko nituzke emakume guztiak eta solidaritatearen erakusle izatea gizezkoa."*
- ... Alkatea: *"Ohiko denez Udalak martxoaren 8aren inguruko harian osatu du bere egitaraua. Egitaraua jakina da batzordean egina, web orrian dago, bihurtik aurrera sareetan egongo da. Uste dut egitarau oso interesgarria dela eta, egitarau osoa irakurri gabe, aipatuko nuke zerbait aukeratzekoetan martxoaren 16an, larunbatean arratsaldeko 19.00etan Aranburun "Bakean dagoena Bakea utzi" banakako bakarriketa Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraireren eskutik. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onartzen dugun honetan uste dut derrigorrezkoa dela, Onintzak ere aipatu du, aipatzea iazko grebaren arrakasta eta munduko mugimendu feministaren olatua. Foru Aldundiaren eskutik Tolosan izan dugu Feminismo 4.0 kongresua bertan 512 pertsonak parte hartu dute. Bertan aipatu nuen gaur egungo politika publikoen agendan berdintasun politikak derrigorrezkoak direla, hori gaur egunean inork ez duela zalantzan jartzen eta gizartearen garapena ez dela ulertzen parekidetasunaren eskutik gertatzen ez bada. Dagoeneko konturatu gara herriko antolaketa eta zerbitzuetan genero ikuspuntuak zeharkakotasunez landu egin behar direla eta politika publikoak ahalegin berezia egin behar dutela emakumeok eskubide osoa dugun herritarrek izaki gure egoera eta beharrak kontutan hartzeko eta horrek baduela gainera, bere eragina emakumeon eguneroko errealitatean. Kongresua berau oso inportantea izan zela ikasteko aukera eman zuelako eta baita ere, ikusteko oraindik asko dugula ikasteko. Kongresu horretan zentralitatea hartu zuten gai diferentek: zaintzak, ekonomiak, indarkeriak. Hainbat ideia plazaratu ziren, nik bi apuntatu nituen, ez nuen aukerarik izan hizlari guztiak entzuteko baina badakit ponentziak bidaltzekoetan direla. Nik bi apuntatuko nituzke, gaur bata politika ekonomikoa ez zirela neutralak eta genero isuriak dituztela. Eta bestea izua erabiltzen dela erreminta bezala emakumeen espazio publikoak mugatzeko. Feminismoak izandako ibilbidea handia eta inportantea izan dela ebidentziatu zuen baita ere kongresuak, pizgarria dela oraindik ere bizitzen ari garen gizarte aktibazio honen une honetara iristeko. Olatua hartzea inportantea dela, berdintasuna erreal*



TOLOSAKO
UDALA

gauzatu dute aldaketak eragiteko eta inportantea dela baita ere politika publikoak bidelagun izatea. “

Alkateak mozioa irakurri du.

Mozioak honela dio:

“Iaz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. Emakumeok planto – Nosotras Paramos lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatzen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba-deia egin du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo eremuan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. Iaz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, Tolosako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- Udala Mugimendu Feministak deitutako grebara atxikitzea eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.*
- Baliabide material eta instituzional guztiak jartzea, Tolosan antolatzen diren elkarretaratze eta jardueren berri emateko.*
- Udaletxeko balkoian bandera feminista jartzea, emakumeen grebaren aldeko ikur gisa.*
- Bere eskumenen alorrean laguntzea baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezkeen eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.*



TOLOSAKO
UDALA

- *Jarraitzea sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatzen, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzeko.*
- *Jarraitzea udal politikan, programa eta proiektuetan genero-ikuspegia zeharkakotasunez txertatzeko estrategia garatzen.*
- *Tolosako Jabetze Eskolaren bitartez balioen transmisioa azpimarratzea, kultura-aldaketak sustatzeko berdintasunezko gizartearen lortzeko eta emakumeen banakako eta taldeko jabetzea.*
- *Zeharkakotasunez sartzeko sorburu, kultura eta erlijio desberdinetako emakume migratzaileen multzoak duen kalteberatasunaren irizpidea eta begirada, non eta Udalaren genero-berdintasunaren politika eta sentsibilizazio- eta formazio-programa guztietan.*

Azkenik, herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** “Bizitzak erdigunera”, 2019ko martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko mozioa.

8. Mozioa: Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrena.

8.Moción 43 aniversario de la proclamación de la República Democrática Árabe Saharaui.

Parte-hartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Uste dut urtero urtero, behin eta berriro errepikatzen den egoera dela eta urtero Udal honek eta Udalbatza honek berresten duena eta babesa ematen dion mozioa dela Saharar herriari. Ez hemen bakarrik, urtero urtero Tolosako herriak eta Tolosaldeak haur saharar jasotzen ditugu udaran Oporrak Bakean egitasmoaren bidez, eta urtero berresten dira, izan dadila azkenengo urtea hona etortzen direla bai mediku eta halako lehen mailako beharrak*



dituztelako. Eta izan dadila ahal bezain pronto etorri daitezela, etortzeko eskubidea dutelako eta ez oinarrizko gabeziak dituztelako, non eta beraien errefuxiatu kanpaleketan. Orduan, gure aldetik behintzat urtero errepikatzen dugu, urtero gure babesa eskaintzen dugu, urtero, baina urtero urtero berrogeita hiru urte pasa dira. Uste dugu urte gehiegi direla. Aipatu nahiko nuke edo bai aipatu nahiko genuke iruditzen zaigula inportantea dela hainbeste urte pasatzen ari diren honetan tolosarrei, Tolosaldeko eskolei ere eskaera bat egitea, egoera hau alda dadin lehenik eta behin inportantea da belaunaldi gazteena jakitun izatea zer gertatu zen. Zer gertatu zen, ze suposatu zuen martxa berdeak, ze suposatu zuen Marroko, Espainia kolonizazio prozesu horretan nola abandonaturik utzi zuen herri bat den gaur egun saharar herrialdea. Uste dugu bai pertsonak eta bai tolosarrok gure erantzukizun bat etxean belaunaldi gaztenei, gure seme-alabei azaldu zer gertatu zen atzo, berrogeita hiru urte, zergatik ume hauek oraindik etortzen diren hona, zergatik 27an bandera egongo den hemen zintzilika, ez ahaztea. Izan ere ahazten den neurrian injustizi hau erreproduzituko da eta indartuko da. Orduan, uste dut hemendik eskaera hau ez dagoela soberan, bai eskolei eta bai familiei dei egin etxean hitz egin dezaten herri honen historia eta herri honen eskubidea galdu ez zaitezela belaunaldi gazteen artean eta nola ez gure elkartasuna horrenbeste sufritzen ari den herri non, desertuan galduak errefuxiatu kanpalekuan dauden belaunaldi guzti hauei zeinak itsasoari begira zegoen herri bat izan eta desertuan galdua dauden itsasoa zer den jakin gabe. Hona etortzen diren gazte horiek hemen ezagutzen dute zer den itsasoa. Begia itxi tarteka eta imajinatu zer izango den hori, arrantzale herri bat non eta desertuan desterratua egotea. Orduan gure elkartasuna eta dei hori, etxeetan eta ikastetxeetan esplikatuz dezatela herri hau zer den eta horren bidez jaso izan dezala etorkizun hobea bat.”

... Alkatea: *“Guk ere babestu egingo dugu adierazpena Tolosaldea Sahararekin eskutik etorritakoa. Bide batez, aprobetxatu nahi dut Tolosaldea Sahararekin eskualde osoan egiten duen lana goraiatzeko. Izan ere, uste dut Ibai, zuk aipatzen zenuen historia eta memoria honi elkarte honen bitartez iristen zaigula herrira. Bere jarduna egiteko behar beharrekota dute laguntza instituzionala, udalen laguntza, baina baita ere eta karabana uste dut, hil honen hasieran atera zela, prentsaurrekoan ez nuen izaterik egon, baina irakurri nuen prentsaurrekoa bera eta aipatzen zuten herritar askok eta askok laguntza jasotzen dutela. Beraz, guk ere, aldeko bozka emango diegu.”*

EHBilduko zinegotzi Ibai Iriarte San Vicentek mozioa irakurri du.

Mozioak honela dio:

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosaldeako udalbatzei ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:



TOLOSAKO
UDALA

1. Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.
2. Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzeko duen misio bakarra izateari utz diezaion.
3. Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zaitzen duen 2600km luze den latsaren harresia eraistea eskatzen du.
4. Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lege kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.
5. Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuarekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.
6. Espainiar estatuko diputatu kongresuak ebatzita behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuak, Marokoko kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.
7. Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenarekin bat etorriz, 2019ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera zuen udaletxean zintzilikatzea adostea."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenaren mozioa.



9. Mozioa: Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berria. Tolosaldeko euskararen mahaia.

9.Moción: La Mesa de Euskara de Tolosaldea. Nuevo modelo de gobernanza.

Parte-hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Inportantea da oso, Tolosaldeko Euskara Mahaia, bai kualitatiboki eta kuantitatiboki. Kuantitatiboki ekimen bateratu batean Tolosaldeko 26 herriak euskararen normalizazioan aurrera egiteko beste urrats bat egin nahi dutelako. Egia esan azken berrogei urteetan asko egin da, asko aurreratu dugu, bai herritarrak erakutsi duten inplikazioarengatik bai gizarte eragile erakutsi duten inplikazioarengatik eta bai erakunde publikoen aldetik egon diren politika egokiengatik, izan bat edo izan bestea gobernuan egon dena. Eta uste dut horren adibide da osoko bilkura hau. Nere lehenengo osoko bilkuran ba zegoen euskaraz hitz egiteko gai ez zenak, gaur denak gara gai, orain dela hamabi urte horrela zen egoera. Hau guzti borondatea izan da. Bestetik inportantea da kualitatiboki, beste maila batean sartzen gara euskararen normalizazioan. Ezin da momentu honetan planteatu euskararen normalizazioan aurrera egin behar badugu herri mailan bakarrik egin daitekeen gauza dela, gizartea asko aldatu da, harreman sare zabalagoa gertatzen dira eta politika eraginkorra izan behar badu kontutan izan behar da. Eta Tolosaldea sare natural bat da, sare natural horretan Tolosak gainera hiriburu izaera oso nabarmena du, agian nabarmenena Hego Euskal Herrian behintzat eta hori aprobetxatu behar da. Sare hori aprobetxatu behar da hizkuntza politika sare horien baitan planifikatu eta aurrera eraman. Sinergiak bilatu behar dira, herriak txikiak duten indarguneak Tolosak izan ditzakeen ahuleziak bideratu ditzake eta alderantziz, inportantea da gobernantza eredu berri bat planteatzen delako. Planteatzen delako elkarri aritzea, planteatzen delako helburu estrategiko batzuen baitan eta balio batzuen baitan. Nik uste dut balio horiek aniztasuna, bizikidetzeta, integrazioa inportanteak direla, izango direla euskararen normalizazioan aurrera egin nahi badugu. Gure babesa agertzen diogu ekimen honi, badakigu ez dela erraza izango, gauza guztiak abian jartzea ez da erraza, are gehiago Tolosaldean momentu honetan beste eskualdetako mailako ekimenak jartzen ari diren momentu berean eta gauza asko aldi berean martxan jartzea konplikatu egiten duelako. Inportantea da kualitatiboki, kuantitatiboki eta euskararen normalizazioan Tolosaldean aurrera pauso nabarmenak eta inportanteak egin nahi baditugu garbi dugu sinergiak eta elkarlana eta horrelako ekimenak beharrezkoak direla."*

... Alkatea: *"Erabat bat nator Iñaki zuk esandako guztiarekin, bakarri argitu ekimen hau 2017ko martxoan hasi zela Galtzaundi Euskara Taldearekin. Galtzaundi Euskara Taldeak hausnarketa bat egin zuen eta, lanketa potolo baten ondoren, hiru ildo zituen proiektu bat aurkeztu zuen. Bat Galtzaundi Euskara Taldea eskualdekoa bilakatzea. Bigarren, gizarte aktibazioa eta sektoreen aplikazioa eta hirugarrena, Tolosaldeko Euskara maila sustatzea. Urte hartan bertan, ekainetik abendura, Soziolinguistika Klusterrak burutzen ari ziren hizkuntza aktibaziorako parte hartu zuen Galtzaundik. 2018ko apirilean izan genuen Tolosaldeko Euskara Mahaiaren lehengo bilera mahaia bultzatzeko konpromiso horrekin, non Tolosak lehenengo*



TOLOSAKO
UDALA

egunetik parte hartu duen . 2018ko apiriletik urrira etorkizuna eraikitzeke estrategia horretan sartzen da lñakik aipatzen zuen gobernantza berri horren eremuan eta 2019. urtea izango da guzti hori egituratzeko urtea. Mahaian, argitzea aldera baita ere, zeintzuk parte hartzen dugun, daude eskualdeko euskara teknikariak hezkuntzakoak baita ere, euskara elkarteak, Udalak, komunikabideak, UEMA, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoa Foru Aldundia eta baita ere eragile sozioekonomikoak.”

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren muga daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaioan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako , gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberitze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnagunea euskararentzat. Baina ausardiaz, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetakoa lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatuek eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna .

*Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordatzen diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskara sustatzeko Lan Mahaiak. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazkoa eraikitzeke urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: **TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.***

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaiak eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkariak zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiagatik, ordezkatzeko dudako erakundearen izenean, ADIERAZTEN DUT:

1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul,



Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan - horietako batean, batzuetan edo guztietan euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua .

2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.
3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaiak izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - *Misioa:* Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.
 - *Helburu estrategikoak:*
 - o Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
 - o Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.
 - o Normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
 - o Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.
 - *Helburu estrategikoak:*
 - o Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
 - o Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
 - o Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.
4. Ordezkatzen dudana erakundeak gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.
5. Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzen dudana erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jarduera eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Eta hau egiteko legezko gaitasun nahikoa dutelarik, zera egiaztatzen sinatzen dut agiri hau: ordezkatzen dudana erakunde edo saileko erabaki organo nagusiak Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzeko egitasmoa babestea eta agiri honetan zehaztutako konpromisoak hartzea onartu zuela."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udaltzak aho batez **onartu du** "Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berria. Tolosaldeko euskararen mahaia" izeneko mozioa.

10.Galderak eta eskaerak.

10.Ruegos y preguntas.

Parte-hartzeak:

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *"Nire galdera euskararekin lotura dago. Korrika antolakuntzak eskaeraren bat egin omen du Korrika Tolosatik apirilean pasatzen denerako. Horren inguruan ba omen daude arazoren batzuk."*

... Alkatea: *"Ez du uste arazorik daudenik baina gauza zehatza bada hitz egingo dugu plenoa amaitzen denean inporta ez bazaizu. Izan ere, eskaera bakoitzak bana-bana hasten bagara plenoan ez genuke inoiz bukatuko".*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Gaur banatu den azkenengo Gobernu Batzarreko aktan jasotzen den erabakietako bat Tolosako Udalak, Gas Naturala Gipuzkoako Kontratazio Zentralaren bitartez hornitzeko kontratuari atxikitzea da. Akordioaren azalpena luze eta konplikatu xamarra da estimatuko genuke hau batzorderen batean, dagokin batzordean, argitzea, detaile guztiak azaltzea. Kezka batzuk, kontraesan batzuk ere sortu dizkigu eta."*

... Alkatea: *"Ados."*

Bukatzeko, herritarrak hitza hartu dute, beraien parte hartzea DVDan espedientea jasota dago.

Besterik gabe, 21:15ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

JARDUNEKO IDAZKARIA